

EMENTXE BERE

JAUNGOIKOA DAGO



Gabon gaba zan. Illuntze a r e t a n edurra, uso-luma politak bailitzazan, gozaro-gozaro jausten zan. Zeruan eta lurrian jai andi ta ikutugarria ospatuten zala, argiro ikusten zan.

“Etxe zuri” basetxe-ko etxeoandre maratza. Joxepantoni zintzoa, bere sukaldian, egur-mukur batzuk sutan ebazalarik, Gabon-apari ospatsua gertetan esku betiakaz inarduan. Joxepantoni andria sukaldari errimia zala errian edonok ekian. Gatzaren neurria ondo neurtuten ekiana zan beintzat.

Bitartian, bere senar Peru Manu jatorrak Belen'go jazoera arrigarriak bere seme-alabatxuei, aritik marira zertzelada guztiakaz edestuten ekin eban eta bere umetxuak sukaldeko bero gozoaren altzoan aitari begira pozez... Martatxu amar urtedun neskatua batez bere. Berau, begi ta belarri, zoli ta adi esaten zana arretaz entzuten...

Joxepantoni andriak ekin eder baten ondoren, gau zoragarri aretako aparta ederto biribildu eban. Zapi-zuriz txukunkiro apainduriko mai zabaluan, janari ta edari eder-ederrak ondo gertaurre egozan. Euskeldun-sendi jatorretan egin oi dan lako “Gabon-apari” gozo-gozoa.

Guraso ta ume apariaren inguruan poz-pezoz ziran. Oitura on eta ederrari jarraituagaz Jaungoikoari eskerrak emanda, janari ta edari gozoak umore onez ta gogaro jan ebezan. Joxepantoni andriaren “erre-egosiak” atz-miazketan jan ebezan.

Apaldu-ondoren, Joxepantoni andriak bere alabatuari esan eutson:

—Martatxu, nun dago Jaungoikoa?

Eta neskatotxu samurra irribarrez erantzun eutson:

—Belen'en.

—Nun geiago? —amak barriro itandu eutson.

—Zeruan eta eleizan... Aldareko Sakramentu santuan —barrirokoan erantzun eutson.

—Zeruan eta eleizan... Aldareko Sakramentu santuan —barrirokoan erantzun eutson.

—Orreitan bakarrik? —amak begi-ziarka esan eutson.

Itz orrek entzutian, neskatua sorbaldak jasoz ixillik geratu zan. Orduan amak, ixilune ori oartuta, arpegi benaz esan eutson:

—Bai, Belen-en, Zeruan eta Eukaristian badago bai. Orreitan bakarrik ez baña... Jaungoikoa leku guztietan dago-ta... Aztu egin yana ala? Kristiñau-ikasbidian zer ikasten don?

—Egin-egitiñan bere —neskatuak lotsaz esan eutson— lengo astian kristiñau-ikasbidia ikasten genozala, abade Jaunak Jaungoikoa leku guztietan da-

goala esaten ekin euskun. Beraz, ori jakin dot... baña... gaur aztu egin yat...

—Barriro eztakiñala aztu gero...

—Ez, ama, ez yata aztuko.

—Ona ba, gaur Gabon-gaba onetan euri erakutit betiko galdumendira ioiazan gazteak, euren

—Ze irakatsi, ama?

Eta beste barik, “atuz neugaz” esanda, bere gelara eroan eban. Eta bertan itzalez ta maitekiro esan eutson:

—Martatxu, ementxe bere Jaungoikoa dago...

Neskatoak buruagaz “baitez” erantzun eutson. Geroago beste gela batzuetara ta abar eroanaz, etxe guztitik erabilli eban leku bakoitzian “ementxe bere Jaungoikoa dago” esanaz. Azkenez, etxearen leiorik andienara eroan eban. Aitz-mendiak, edur zuriz arrigarririo apainduta ikusi ebezan. Une aretan, gau aretako edur-jauste ugaria geratua zan nunbait; eta aterruna luze baten erdian, zeruko izar politak, iñoz ez lako dizdira politak egitiñaz urduritasunez igituten ziran... Gauaro zoragarria!

Gure ama-alabak, zeruari eta larrari adi-adi, ixilunetxu bat egin eben. Gerotxuago, ixilunetxua beingoz urratzen ebalarik, ama on-onak bere alabari esan eutson:

—Or aitz eta mendietan bere Jaungoikoa dago... Izarrez beteriko goi txukun orretan bere Jaungoikoa dago... Ikusten diran eta ikusten ez diran gauza ta leku guztietan bere Jaungoikoa dagoala eztakiñala aztu gero. Zeru-bidian zuzen jarraitze-ko, itz oneiak gomutatia naiko den: “Ementxe bere Jaungoikoa dago” esanaz.

—Bai —esan eban neskatuak— gaurko irakatsi ederrak neure biotzaren erdian erabilteko, alegitiñaz alegin egingo dodaz, egunero sarritan esango dotalarik: Ementxe bere Jaungoikoa dago.

Esan eta egin, Martatxu'k, bere ama on-onaren esanak betetuten, gau aretan bertan asi zan. Eta, aurrerantzian, Jaungoikoaren gomuta bizia beragaz beti ebalarik, zeruko bidean zuzen eta zintzoro ibili zan, bere lagunentzat jarraibide eta eredu izaten zala.

Martatxu'k esaera bikain ori zala-ta, bere aiskide ta lagunen artian, mesede ta on andiak egin ebezan. Eta, ondiño geiago dana, bide okerretatik betiko galdumendira ioiazan gazteak, euren oben edo pekatuakaz zintzoro damututa zirala, betiko zorionera eroango ebezan zeruko bide ederrian sartuten ikusi ebezan.

Orra ba, Gabon-gaba aretako Joxepantoni andriaren irakatsi ederrak zelako ondoren onuratsuak izan ebezan.

Zorionekoa Jaungoikoaren gomuta bizia bere irudimendian eta biotzian darabilena. Jaungoikoaren laguntza osoa beragan izango dau-ta.

Beraz, geuk bere, ontxe bertan asita, arretaz ta biotzez sarritan esan dagigun: “Ementxe bere Jaungoikoa dago”.

Mañariko ERROSE